

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Burgeluko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Herritarren Parte-hartze Programa

Udalbatzak 2020ko irailaren 29ko ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, Burgeluko udalerriko Hiri Antolamentuko Plan Orokorra (HAPO) onartzeko prozedura formulatu eta has-teko erabakia hartu zen, eta akordioaren hirugarren puntuak, herritarren parte hartze programa ALHAOn eta udalaren webgunean laburbilduta argitaratzea agintzen du.

Herritarren Parte-hartze Programa

1. Parte hartzeko Gida

1.1. OINARRIZKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK:

1.1.a) Hiri-antolamenduko planak eta ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedurak egiteari eta berrikusteari buruzko informazio eta parte-hartze publikoaren arloan indarrean dagoen legegarian ezarritako irizpideak eta helburuak betetzea.

1.1.b) Gardentasuna prozesuan; zehazki:

- Parte hartzeko prozesuaren joko-arauak eta mugak ezartzea: jarduera-eremua, indarrean dagoen legeria, epeak, ...

- Informazioa egiazki eta entzuketa jarraituarekin transmititzea.

- Parte hartze prozesuan erabakigarriak diren gaiak, eta ez direnak, bereiztea.

- Hartutako erabakiak modu arrazoituan itzultzea herritarrei, eta egindako txostenak modu desberdinetan eskuragarri izatea (papera, posta elektronikoa, webgunea, sare sozialak).

1.1.c) Izapidetzeko prozedura administratiboetara egokitutako parte hartzeko uneak.

- Erabakiak hartzen diren ondorengo faseetako hasierako informazio eta aurrerapen denbo-rak bereiztea, non garrantzi handieneko ekarpenak eta iradokizunak egiten diren.

- Fase bakoitzeko denborak argi zehaztea.

- Prozesuaren fase bakoitzean parte-hartzea errazteko eta bultzatzeko tresna egokienak erabiltzea.

1.1.d) Parte-hartzearen irismena: guztiok guztiontzat.

- Udalaren beharrak eta herritarren ekarpenak dokumentu bakar batean biltzea, HAPOn islatuko dena.

- Benetako parte-hartzea ezartzea, HAPO herritarren ekarpenekin hobetzea ahalbidetuko duena, baztertzaila ez den prozesu bat izanik, herritar guztientzat irekia dagoena.

- Parte-hartze maila desberdinak kontuan hartzea eta prozesuan integratzea, hainbat eragi-leren bitartez.

- Askotariko bitartekoak erabiltzea, idatzizkoak, ahozkoak, digitalak eta bilerak, ekintza-proposamenak aberastu eta parte-hartze aktiboa errazteko.

- Materialak eta ahozko zein idatzizko aurkezpenak publiko mota guztiei egokitzea. Materialak bi mailatan egitea planteatzen da: maila teknikoan eta dibulgaziokoan, erabilitako hizkuntza eta teknizismoak zainduz, eta terminoak modu argian, ulergarrian eta denen eskura azalduz.

1.1.e) Udalaren parte-hartze prozesuaren jarraipena.

- Hirigintza Batzorde bat sortzea HAPOren izapidetze-prozesuaren jarraipena egiteko, parte-hartze integral eta aktiboa zaintzen duena.

- Lan-taldeen bidez plana egiten parte-hartzera formalki gonbidatuko diren pertsona, elkarte eta erakundeen zerrenda egitea, udalerrian dauden talde eta erakundeak bereziki kontuan hartuta.

- Administrazio Batzarrarekin bilerak egitea, udalerriko kontzejuekin harreman zuzena izateko.

- Egiten diren parte-hartze saio bakoitzaren ondorioak Udalarekin aztertzea; gainera, HAPOren idazketan aurreikusitako fase bakoitza amaitzean, erredakzio-taldeak dokumentu bat presatutako du fase horretako parte-hartze prozesuaren ondorioekin, eta hauek fase horri dagokion dokumentuan sartuko dira.

1.1.f) Parte-hartze pertsonalizatua bilatzea. Helburu nagusia herritar guztien benetako parte-hartzea bilatzea da. Parte-hartzea eragiteko beharra planteatzen da, eta, horretarako, alde batetik, herritarrei benetan interesatzen zaizkien gaiak identifikatu eta eztabaidatu behar dira; eta bestetik, bitarteko egokiak aurkitu behar dira deialdiak behar bezala zabaltzeko.

1.2. PROPOSATUTAKO SISTEMAK ETA BITARTEKOAK:

1.2.a) Herritarrei arreta emateko sistemak.

Ahalik eta pertsona gehien eta, bereziki, Plan Orokorra izapidetzeko prozesuan hartutako erabakiek gehien eragiten dietenak inplikatzeko, hiru bilera mota proposatzen dira. Bilera hauek, plangintzaren fase desberdinetako erabakiak hartzeko ahalik eta egokienak izango dira, eta ondoren planteatzen den prozesuan zehar tartekatuko dira. Honakoak dira:

- Bilera, saio eta foro orokorrak, herritar guztiei irekiak, hirigintza-plangintzako gai orokorrak eta bereziak azaltzeko, inskribatzen diren fasearen arabera. Horietan, gainera, herritar guztien informazioa, iritziak eta nahiak bilduko dira, inkestean bidez berretsiko direnak.

- Bilera eta lan-saio berezituak interes berezia izan dezaketen pertsona-taldeekin:

- Gaika edo kontzejuka, prozesu osoan modu aktiboan parte hartzen duten lan-taldeak.

- Ikuspegi espezifikoak eskeintzen duten elkarteak (kulturalak, erretiratuak, emakumeak), kooperatibak, kirol-elkarteak, eta gizarte-talde adierazgarriak, adibidez, gazteak, haur txikiak edo mugitzeko arazoak dituzten adineakoak dituzten familiak, etab.

- Aurrerapen-fasearen ondoren, bilerak egingo dira interes partikularrak dituzten pertsona-taldeekin. Adibidez, garatzeko aurreikusitako lurzoruetan aurkitzen diren lurzatien jabeak edo bide publikoen ondoko lurzoruetan aurkitzen diren eraiki gabeko lurzatien jabeak, landa-ingurunearen ustiapenarekin lotutako pertsonak, emakumeen elkarteak, etab.

- Erredakzio-taldeko langileek banakako arreta jarraitua eskeiniko dute pgouelburgo@gmail.com posta elektronikoaren bidez eta telefonoz.

Parte hartzeko prozesuaren fase desberdinetako lan-saioen barruan, parte hartzeko ibilaldiak egingo dira herrigunean edo udalerrian, bizilagun guztiei irekita, bileretan agertzen diren gai bereziak in situ hitz egiteko, eztabaidatzeko eta baloratzeko, bai eta ibilaldietan sor daitezkeen kezka berriak jasotzeko ere.

1.2.b) Parte hartzeko programaren jarraipena egiteko eskuragarri dauden hedabideak eta dibulgazio-materiala.

Oro har, HAPOn dokumentazioak zabaltzeko, honako hau proposatzen da:

- HAPOn webgune bat mantentzea, plana izapidetzeari buruzko informazio guztia iraultzeko. Burgeluko Udalaren webgunean barruan geldituko da.

- Webgunearekin lotuta egongo diren sare sozialetan ekitaldiak argitaratzea. Hauen bidez gazteak planaren garapenera eta, horrekin, udalerrriaren etorkizunera hurbiltzea ahalbidetuko dute.

Deialdia desberdinak zabaltzeko, honako bitartekoak planteatzen dira. Hauek, nolahi ere, landu beharreko gaien zerrenda argia eta horrek dakarren interesa erakutsiko dute.

- Bilera, saio edo foro orokorretarako:

- Iragarki-tauletan eta deialdietako leku interesgarrietan argitaratzea.

- Webgunean eta sare sozialetan argitaratzea.

- Etxeetako postontzietan materiala banatzea.

- Interes berezia izan dezaketen pertsona-taldeekin egingo diren lan-deialdiak, dei perstonalizatuak edo posta elektronikoaren bidez zabalduko dira.

Prozesuan zehar emango den dibulgazio-materialari dagokionez, honakoak daude:

- Saiotara eta bileretara joaten diren pertsonen gaiak errazago ulertzeko, ahalik eta argien eta azalpenezkoenak diren irudien proiektioa. Bilera motaren arabera, baliabide informatiko horiek dokumentu inprimatuarekin osatuko dira, biztanle guztiak prozesuan integratzen lagundu ahal izateko.

- Erredakzio-taldeak egindako eredu estandarizatuak, prozesuko eragile guztien arteko informazio transmisioa erraztu eta sinplifikatzen duten era guztietako izapideetarako. Dokumentu horien artean, honakoak daude:

- Wegunearen bidez ezagutzera eman diren zirriborroei eta lan dokumentuei buruzko iradokizunak edo oharrak idazteko ereduak.

- Udalak hasieran onetsitako aurrerapenaren edo HAPOn edukiari buruzko kontsulta ereduak, iradokizunak eta alegazioak aurkeztea sustatzen duten argibideak eskatu ahal izateko.

- Aurrerapenari buruzko iradokizunak aurkezteko eta hasieran onetsitako Planari alegazioak egiteko ereduak.

- Aurrerapenaren eta hasieran onetsitako HAPOn dokumentuak jendaurrean aurkeztearekin batera, erredakzio-taldeak triptiko argi-erraz bat prestatuko du, beharrezko grafikoeekin, non proposamenaren alderdi esanguratsuenak azalduko diren, herritar guztien ulermena errazteko.

2. Parte-hartze prozesua

2.1. 1. FASEA: HIRIGINTZA INFORMAZIOA:

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta haren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa idazteko prozedura hasteari buruzko informazio-ohar bat bidaliko zaie herritar guztiei, posta arruntez. Ohar horretan, parte hartzeko lehen bilerarako deia egingo zaie herritarrei. Hau guztia Udalaren webgunean argitaratuko da eta sare sozialen bidez zabalduko da.

- Lehen bilera, kontzeju bakoitzean egingo da, herritar guztiei irekia. Bertan, modu sintetiko eta argian azalduko da zer den HAPO bat eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa, nola gauzatuko den eta beharrezkoak diren bitartekoak; Herritarren Parte-hartze Programa azalduko da, herritarren parte-hartzea prozesu osoan integratzeko interes berezia jarritz. Bilera horretan, aurretiko inkesta estandarizatuaren irismena azalduko da. Inkesta hau bertaratutakoen artean banatuko da eta webgunean ere argitaratuko da; landutako geiei buruzko lehen iritziak, zalantzak eta ideiak jasotzea da helburua. Era berean, azalpen-saioan emandako informazioa Udalaren webgunean zabalduko da.

- Aldez aurreko inkesta estandarizatua postontzietan banatuko da, hedapen handiagoa bermatzeko.

- Parte hartzeko lan-talde edo lan-taldeak abian jartzea; gai edo kontzejuen arabera ezar daitezke, biztanleen eskaeren arabera.

- Gutxienez bi saio edo hitzaldi tematiko orokor egingo dira, herritar guztiei irekiak, planeamenduko gai zehatzei buruzko ibilaldi kolektiboekin, inkesten bidez identifikatutako gaiak kontuan hartuta. Dibulgaziozko hitzaldiak izango dira, eztabaidatzeko eta iritzia jasotzeko. Parte hartzeko lan-talde edo lan-taldeetako kideak berariaz gonbidatuko dira.

- Aurretiazko ekarpen guztiak eta diagnostiko globalaren emaitza kontuan hartuta, hauteman diren ahuleziei, mehatxuei, indarrei eta aukerei buruzko informazioa, analisia eta diagnostikoa biltzeko dokumentu bat prestatu eta bidaliko da. Dokumentu honek ulermena eta herritarren eta elkarten arteko eztabaida sustatuko duen hizkuntza eta adierazpen grafikoa erabiliko du, eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

- Herritar guztiei irekitako bilera orokorra, aurreko ataleko hirigintza-informazio dokumentua azaltzeko. Bileran bertan eredu bat banatuko da, ahalik eta bizilagun gehienek dokumentuaren inguruan duten iritzia jaso ahal izateko; inkesta hau webgunean ere eskuragarri egongo da.

2.2. 2. FASEA. AURRERAPENA ETA HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA PRESTATZEA:

- Herritar guztiei irekitako aurkezpen orokorra, Aurrerapena idazteko planteatutako helburuen eta aukeren oinarrizko dokumentua azaltzeko, balizko azalpen-ibilaldiekin. Berariaz gonbidatuko dira lan-taldeko edo lan-taldeetako kideak. Bileraren amaieran iradokizunak jasoko dira.

- Beharrezkoa izanez gero, lan-taldeekin edo kontzekuejin eztabaidatu beharreko gai zehatzei buruzko bilerak egingo dira.

- Aurrerapenaren memorian orain arte egindako parte-hartze prozesuaren emaitzak sartuko dira.

2.3. 3. FASEA: PLANGINTZAREN AURRERAPENAREN ETA HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOAREN EDUKIA AZALTZEA. IRADOKIZUNENTXOSTENAK:

- Fase honetako lehen astean, Aurrerapena argitaratzen denetik, erredakzio-taldeak herritar guztiei irekitako saio orokor bat egingo du. Aurretik bidalitako informazio-triptiko batekin batera, iradokizunak idazteko eredu bat zabalduko da.

- Aurrerapena erakusteko materialaren prestaketa. Erakusketan Aurrerapenaren dokumentuekin panelak ikusgai jarriko dira.

- Erakusketaren gainerako asteetan, erredakzio-taldea astean behin egongo da interesdunen eskura, parte hartze egokia eta iradokizunak idaztea sustatzen duten azalpenak edo argibideak emateko, edo komentatu nahi diren eremuetan ibilaldiak egiteko.

- Iradokizunen behin betiko txostena bidaltzea. Beharrezkoa izanez gero, interesdunekin bilerak egingo dira aldez aurretik Udalarekin adostutako erredakzio-taldeak proposatutako erantzunak azaltzeko.

- Lantaldeetan Irismen-dokumentuaren aurkezpena, herritarrentzat bereziki interesgarriak diren gaietan duen eragina jasotzen duen eranskin batekin. Hau Udalaren webgunean argitaratuko da.

4. FASEA: HASIERAKO ONESPENERAKO HAPOREN PROIEKTUA:

- Nahiz eta herritarren parte-hartzeak interes berezia duen aurreko faseetan, esperientziak erakusten du Plana idazterakoan ere herritarren oharrak eta iradokizunak jasotzea komeni dela, bereziki dokumentua idazteko prozesuan sortzen diren gai zehatzei buruz hitz egiteko.

- Fase honen hasieran, programa honetan aurreikusitako ekintzak egokitu eta eguneratuko dira, ezarritako irizpide eta helburuei erantzuteko. Berrikuspen horrek bereziki kontuan hartuko du orain arte jarraitutako parte-hartze prozesua.

5. FASEA: HAPOREN EDUKIAREN AZALPENA ALEGAZIOEN FASEAN:

- Hasierako onesperan ondoren, erredakzio-taldeak planaren irismena azalduko du kontzeju bakoitzean. Aurretik bidalitako informazio-triptiko batekin batera, alegazioak idazteko eredu bat zabalduko da.

- Erakusketaren gainerako asteetan, erredakzio-taldea astean behin egongo da interesdunen eskura, alegazioak behar bezala idaztea erraztuko duten azalpenak edo argibideak emateko.

- Alegazioen behin betiko txostena bidaltzea. Beharrezkoa izanez gero, interesdunekin bilerak hitzartuko dira aldez aurretik Udalarekin adostutako erredakzio-taldearen ebazpen-proposamena azaltzeko.

Eta jendeaurrean jarri da, jende guztiak jakin dezan.

Burgelu, 2020ko urriaren 6a

Alkate-presidentea

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA